



Martutene

Pabloren azken asmakizuna

Pablo Diaz de Gereñu martutenearrak tramankulu ugari asmatu ditu. Oraingoan, itsasoan galipota biltzeko ontzi baten proiektua egin du. Egitasmoa Eusko Jaurlaritzari aurkeztu dio, baina ez du erantzunik jaso.

Aitor Urkizu Azuabarrena
Galipotak eragindako hondamendia eteteko, Pablo Diaz de Gereñu auzotarrak fuel-olioa itsasotik jasotzeko katamaran saredun baten proiektua egin du. Proiektua hiruzpalau urte lehenago egin zuen, baina birmoldatu egin du, galipota jasotzeko; birmoldaketa honekin, azpi aldean inbutu itxurako sarea izango luke ontziak. Horrez gain, aurreko ereduak ez zuen motorra, eta honek bai. Diaz de Gereñuk aurreko katamarana Urumea ibaian ibiltzeko erabili du, "eta ber-

tan dut oraindik". Ontzi hori 'Maitia Txuri Urdiña Urumea' izenez bataiatu zuen Pablok.

Eusko Jaurlaritzak erantzunik ez

Proiektuko katamaranarekin, galipota sarean pilotuko litzateke itsasoan: "Sareko zuloak estuak direnez, galipota bertan geratuko litzateke". Eta sarea betez gero, beste bat jartzeko aukera ere bada. Fuel-olioa jasotzeko ez ezik, katamarana Realeko jokalaririk Kontxako badian paseatzeko ere erabil litekeela adierazi digu Diaz de Gereñuk.

Katamaranaren egitasmoa Eusko Jaurlaritzako Arrantza eta Nekazaritza Saileko ordez-

kari Andoni Idoiagari aurkeztu zion Pablok duela sei hilabete: "Asko gustatu zitzaion proiektua. Hitz egin ondoren, hurrengo egunean deituko zidala esan zidan. Sei hilabetetik gora joan dira deiaren zain. Ez dute oraindik ezer egin".



Bidebieta

Non utziko dut autoa?

Hauxe da gidari askok beren buruari egiten dioten galdera auzora iristerakoan. Gauetz zein asteburuan zaila da, bereziki, Bidebietan autoa uztea.

Gauetz auzora iristen den gidari orok lanak izan ohi ditu autoa uzteko. Serapio Mujika kalean, kiroldegi inguruan, tokiren bat egon ohi da. Julio Urkixo zein Jon Karla Gerra kaleetan, baina, gehienetan ez da tokirik izaten eta beraz, kale hauetan bizi diren auzotarrek Bidebietako beste aldean, kiroldegi eta eliza ondoko parkearen inguruan utzi behar izaten dute autoa.

Auto asko aldapatxoan

Auzoaren beste aldera joan nahi ez duten gidari batzuek Jon Karla Gerra kalean, 19 eta 20 dorreen arteko aldapatxoan uzten dute autoa, debekata dagoen arren. Asteburuetan, bereziki, aldapatxoa autoz beteta egon ohi da. Autook zirkulazioa eragozten dute errepidean ez dago bi autoerentzako lekurik— eta oinezkoentzat ere oztopo bilakatzen dira, gidariak autoak es-

palaira igo ohi baitituzte. Hala eta guztiz ere, oso gutxitan etortzen da garabia Jon Karla Gerra kalera.

215 leku Kontadorezen

Autoak uzteko leku ezari irtenbidea emateko, Kontadorezen eraikitzen ari diren babes ofizialeko etxeen azpian aparkalekua egiten ari da Udala. Bertan, 215 autoentzako lekua izango da: 100 etxe berrietako bizilagunentzat eta gainontzeko 115 auzotarrentzat. Aparkaleku hau egiten duten bitartean, auzoko gidariak buruhausteekin jarraituko dute autoa uzteko orduan.

